

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 249/2022 Erabakia, apirilaren 26koa. Onestea maiatzaren 25eko 314/2021 Erabakiaren bidez onetsitako laguntzen deialdiaren ebazpena

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntza programa arautzen du II. tituluan.

Haren 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 314/2021 Erabakiaren bidez onetsi zen Arabako toki erakundeei programa horren kontura laguntzak emateko 2022ko deialdia, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 59. zenbakian, 2021eko maiatzaren 31n.

Erabaki horrek bigarren xedapenaren bigarren puntuan ezarritakoaren arabera, "Hasierako finantza hornidura Arabako Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian auzolanak finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura gisa dago kuantifikatuta. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea".

Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren bidez, foru aurrekontua onetsi zen, eta honako partida hauek esleitu ziren, auzo harremanak sustatzeko laguntzak finantzatzeko:

- 10203. G/459100/76800102 Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenak: 584.573,00 euro.
- 10203. G/459100/76800103 Osagarria: Auzo Harremanak: 175.800,00 euro.

Horren ondorioz, aurretik aipatutako laguntza programa finantzatzeko partiden zenbatekoa, hasiera batean, 760.373,00 eurotan kuantifikatu zen.

Era berean, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz, obra txikiak egiteko laguntzen deialdian aurkeztutako soberakinaren zati bat, zehazki 49.882,28 euro, aplikatu da auzo harremanak sustatzeko eskatu diren jarduketetarako. Beraz, laguntza horietarako erabiliko den azken zenbatekoa 810.255,28 euro da, eta zenbateko hori handitu egin ahal izango da aurrekontu erabilgarritasunaren arabera.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, instrukziorako eskumena daukan organoa izanik, eta 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, prozedura bideratu du aipatutako foru arauan xedatutakoa betez.

Azterketa horretatik ondorioztatzen da diruz lagungarritzat jotako obretarako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 810.255,28 eurokoa dela, eta horien guztien guztizko gauzatze kostua 905.127,02 eurokoa dela.

Ondorioz, proposamena helarazi zaio kide anitzeko organoari, 21/2013 Foru Arauan ezartzen den bezala. Proposamen horrek honako hauek jasotzen ditu: eskatutako lanen zerrenda, ondoren atzera bota diren eskaerak, diruz lagundu daitezkeen lanak, dirulaguntza izango duten lanak eta ukatu diren eskaerak, horietako bakoitzari buruzko identifikazio eta kuantifikazio informazio zehatzarekin.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuaren txostena eta kide anitzeko organoaren akta ikusirik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2022ko deialdiaren zenbatekoa 295.895,28 euroz handitzea, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 314/2021 Erabakiaren bigarren xedapenaren bigarren puntuari xedatutakoari eta ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, obra txikiak egiteko laguntzen deialdian aurkeztutako soberakinaren zati bat aplikatzeagatik.

Bigarrena. Onestea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei laguntzak ematea, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2022ko deialdiaren kontura. Dirulaguntza horiek adierazitako zertarakoetarako eta zenbatekoetan emango dira eta, guztira, 810.255,28 euro egiten dute.

Hirugarrena. Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela joko da baldin eta, 15 egun balioduneko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, ez badu aurkezten dirulaguntzan atzera egiteko idazkirik Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Sailean.

Laugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren 10203. G/459100/76800102 aurrekontu aplikazioaren kontura esleituko dira.

Bosgarrena. Toki erakundeak, obra hasi aurretik, udal lizentzia edo udalerriko hirigintza aholkularitzaz arduratzen den teknikariaren txostena izan beharko du, nahitaezkoa denean.

Seigarrena. Toki erakundeak, aurreko puntuari adierazitako baldintzak betetzen dituen obra lizentziaz gain, organo eskudunen autorizazioak eta baimenak edo aldeko txostenak bidali beharko dizkio Lurralde Orekaren Sailari, egin beharreko jardunak sektoreko legeriaren baten eraginpean baldin badaude. Dirulaguntza ordaintzeko, aipatutako baldintza bete beharko da.

Zazpigarrena. Toki erakundeak auzolana zein egun eta ordutan egingo den jakinarazi behar dio Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari, gutxienez 24 ordu lehenago. Jakinarazpena telefonoz egin daiteke (945 18 18 18; luzapena: 52445), edo posta elektronikoz (aigarcia@araba.eus), eta ohartarazten da hori ez betetzeak emandako diru laguntza itzultzea ekar dezakeela.

Zortzigarrena. 21/2013 Foru Arauak 12. artikuluen 2. puntuari jarraituz, toki erakunde onuradunak aseguru bat izan behar du kontratatuta, auzolanari ekin aurretik, auzolanean parte hartzen dutenentzat, istripu arriskuak eta istripuaren ondorioz gerta daitezkeenak estaltzeko.

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

Hamargarrena. Obrak egiteko epea 2022ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da justifikazio dokumentuak aurkezteko. Salbuespen gisa, horretarako ahalmena duen Lurralde Orekaren Saileko titularrak berriaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren, obraren exekuzioa amaitzeko eta exekuzio hori justifikatzen duten agiriak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, 2022ko abenduaren 31ra arte, baina ezingo da data horretatik aurrerako luzapenik eman.

Hamaikagarrena. Erakundeak bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Hamabigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak laguntzak justifikatzeko agiriak onetsi ondoren. Agiri horiek modu telematikoan aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan eskura dagoen berriazko izapidaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/relaciones-vecinales>), eta honako hauek dira:

– Materialari eta lanak gauzatzeko beharrezkoak diren makinaren alokairuari dagozkien fakturak, dirulaguntzaren onuraduna den erakundearen izenean jaulkiak, baina kontzeptu horiek dirulaguntza eskaeran sartu badira bakarrik.

– Diruz lagundutako obra gauzatzeko egindako auzolanen liburuko orrialdeak, gutxienez data, bertaratuak eta orduak adierazita, 21/2013 Foru Arauaren 11. artikuluko 1. puntuak ezartzen duen moduan.

– Erakunde onuradunak fakturak onetsi izanaren ziurtagiria.

– Erantzukizunpeko adierazpena, jasotzen duena emandako laguntzaren egiaztagiriak (Arabako Foru aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztuak) bat datozela fidelki jatorrizko agiriekin, zeinak erakunde onuradunaren legezko egoitzan baitaude.

Erakundeak, justifikazio agiriekin batera, egindako ordainketen egiaztagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Une horretan aurkezten ez baditu, bi hilabete izango ditu, gehienez ere, ziurtagiriak aurkezteko, dirulaguntza jasotzen duenetik aurrera.

Ziurtagiri horiek ez badira aurreko paragrafoan adierazitako epean igortzen, hasiera emango zaio dagokion dirulaguntza eta berandutze interesak itzultzeko prozedurari.

Hamahirugarrena. Ez ematea dirulaguntzarik auzo harremanak sustatzeko 2022ko deialdiaren kontura II. eranskinean zehazten diren erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulutan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

Hamalagarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza burutu eta behar adina xedapen eman ditzan, espediente hauek izapidetzeko.

Hamabosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamaseigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA



I. ERANSKINA. AUZOLANAK. 2022AN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

URTEA	ESP	ERAK- MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	AURREKONTUA LAGUNGARRIA	DIRULAGUNTZA
2022	5027	AB	ABERASTURI	Bideak konpontzea	5.183,64	5.183,64	5.183,64
2022	5033	AB	ABORNIKANO	Parke publikoetan bankuak jartzea	5.322,79	5.322,79	5.322,79
2022	5028	U	AGURAIN	Haurrentzako jolasak instalatzea Alanguan	24.666,94	21.844,71	21.844,71
2022	5022	AB	ALDA	Bideak konpontzeko materiala	1.447,46	1.447,46	1.447,46
2022	5035	AB	AMETZAGA ZUIA	Gorbeako Guirtearen erreplika bat instalatzea eta oinarria hormigiz betetzea	9.263,76	9.263,76	9.263,76
2022	5050	AB	APILAIZ	Pilotalekuo altzariak eta segurtasun elementuak	13.064,38	13.064,38	13.064,38
2022	5070	U	ARAMAIO	Eguzkierra auzoko bideko arekak egitea	23.769,14	17.780,89	17.780,89
2022	5059	AB	ARESPALDITZA	Udal megafonia sistema	23.980,80	23.980,80	23.980,80
2022	5066	AB	ARRIETA	Gizarte etxean lehoi berriak ipintzea	1.694,00	1.512,50	1.512,50
2022	5042	AB	AUDIKANA	Hilerrirako bideko hesia aldatzea	9.383,55	9.383,55	9.383,55
2022	5071	AB	BACHICABO	Herriko bolatokia, atarpea erakitzeko materialak hornitzea	22.689,16	21.249,26	21.249,26
2022	5014	U	BILAR	Gune publikoak hobetzea, auzo harremanak sustatzeko eta aulki kalcia jartzea	16.044,24	14.592,24	14.592,24
2022	5080	AB	BÓVEDA	Edukiontzia estaltzeko euskarriak jartzea	29.983,80	29.983,80	29.983,80
2022	5038	AB	DELIKA	Baranda jartzea plazan eta inguruan	16.446,32	16.446,32	16.446,32
2022	5086	AB	DONE BIKENDI HARANA	Paperontzia eta informazio kartela jartzea	473,11	212,96	212,96
2022	5031	U	ERRIBERAGOITIA	Hilerriko estalkia konpontzea Arbiganon	10.224,00	7.666,01	7.666,01
2022	5074	U	ESKUERNAGA	2 plinik mahai instalatzea	6.175,84	6.175,84	6.175,84
2022	5072	AB	ESPEJIO	Espejoko askaldegirako mahaia	18.392,00	16.464,47	16.464,47
2022	5055	AB	ESTAVILLO	Hiriko altzariak	5.297,39	5.297,39	5.297,39
2022	5000	AB	ETXABARRI URTUPIÑA	Lorategiak urratutako sarea konpontzea	2.311,10	2.311,10	2.311,10
2022	5007	AB	FAIDU	Virgen de la Peña baselizarako bidea	3.222,23	3.222,23	3.222,23
2022	5075	AB	FRESNEDA	Fresnedan, biltegiak atek hornitzea	6.630,80	6.630,80	6.630,80
2022	5032	AB	GATZAGA BURADON	Iturri zaharra eta loreontziak beritzea	13.292,94	12.869,44	12.869,44
2022	5082	U	GAUBEA	Edukiontzia estaltzeko euskarriak jartzea	10.482,23	10.004,28	10.004,28
2022	5001	AB	GAZEKO	Haurrentzako jolasak beritzea	13.718,70	13.718,70	13.718,70
2022	5005	AB	GILLERNA	Hiriko altzariak egokitzea eta erostea	5.203,00	3.436,88	3.436,88
2022	5051	AB	GORREBUSTO	Gorrebustoko kontzejtu etxearen fatxadako lehoak aldatzea	7.710,12	6.403,32	6.403,32
2022	5073	AB	GURENDES-QUEJO	Gune arriksutuetarako barandak eta hiriko altzariak Gurendesen eta Quejon	20.219,10	20.219,10	20.219,10
2022	5063	AB	HEREDA	Iturri publikoa konpontzea	342,67	342,67	342,67
2022	5048	AB	IBARGUREN	Harlangaitzeko hormaren gainaldeko hesitzea	5.596,25	5.596,25	5.596,25
2022	5029	U	IEKORA	Ekorako bideak konpontzea	18.736,24	18.736,24	18.736,24
2022	5044	AB	IXONA	Ereму publikoetan bankuak instalatzea	2.364,58	2.364,58	2.364,58
2022	5025	AB	IZORIA	Utzandei errota birgaitzea	29.959,60	29.959,60	29.959,60
2022	5003	AB	JUNGITU	Bankuak egokitzea	668,56	668,56	668,56
2022	5023	U	KRIPAN	Udal parkeko hiriko altzariak, horma-irudiak, bankuak eta paperontziak	23.859,99	23.859,99	23.859,99
2022	5020	AB	LABRAZA	Babes barandak jartzea	5.965,30	5.965,30	5.965,30
2022	5010	AB	LACERVILLA	Gizarte etxeko atek eta lehoak margotzeko materiala	4.598,00	4.598,00	4.598,00
2022	5006	U	LAGUARDIA	Ei Campillarreko gizarte etxea eta ingurunea hobetzea	8.678,12	7.286,62	7.286,62
2022	5060	AB	LEGUTIO	Instalazio biosasungariak	14.988,61	14.553,01	14.553,01
2022	5061	U	LEZA	Haurrentzako jolasak instalatzea	19.456,80	11.132,00	11.132,00
2022	5067	AB	LLANTENO	Eskolen ondoko bidean, zurezko lau jarleku jartzea, beso-euskarriak	1.573,00	1.573,00	1.573,00
2022	5068	AB	LUIAONDO	Luaiondoko pilotalekua konpontzea	22.028,05	13.942,23	13.942,23
2022	5002	AB	LUNA	Gilarteko edateko uraren biltegiak bidea konpontzea (bigarren fasea)	27.150,85	22.717,50	22.717,50
2022	5013	U	MANJETA	Hesia eta barandak hornitzea	21.194,36	21.194,36	21.194,36
2022	5017	AB	MARKINEZ	Aparkalekua egokitzea	7.004,93	7.004,93	7.004,93
2022	5009	AB	MARTIODA	Gizarte etxearen kanpoaldeko eremua egokitzea	10.648,07	10.648,07	10.648,07
2022	5008	AB	MENAGARAI-BEOTEGI	La Calzada bidea konpontzea Erizerantz	20.528,86	20.528,86	20.528,86
2022	5021	AB	MONASTERIOGUREN	Errota egokitzea	678,70	678,70	678,70
2022	5043	U	MOREDA ARABA	Atarpeko telatua konpontzea	17.727,11	17.727,11	17.727,11
2022	5083	AB	NARBAIZA	Bolatokia konpontzea	4.130,65	4.130,65	4.130,65
2022	5030	U	NAVARRIDAS	Kirolgunean, haurrentzako jolasak instalatzea	29.953,55	9.390,21	9.390,21
2022	5012	AB	NAVARRETE	Hormigoizko zolata araztegiaren eta hilerrian	13.092,20	12.114,52	12.114,52
2022	5065	AB	OKINA	Gizarte etxeko berokuntza	7.361,48	7.361,48	7.361,48
2022	5041	U	OKONDO	Kirkiño-Kortina gauzatzea eta ferratzeko zaldikoa	16.788,62	15.792,17	15.792,17
2022	5081	AB	OSMA	Beheto sua aldatzea eraginkortasun energetikoa hobetzeko	2.504,70	2.504,70	2.504,70
2022	5015	AB	OTEO	Haurrentzako jolasak instalatzea	17.352,85	15.695,15	15.695,15
2022	5047	AB	PÁGANOS	Hiriko altzariak instalatzea	5.666,43	5.666,43	5.666,43
2022	5079	AB	PINEDO	Edukiontzia estaltzeko euskarriak jartzea	13.061,95	12.469,05	12.469,05
2022	5026	AB	PIPAÓN	Hiru bilketa guneetan, edukiontzia jartzea	19.844,00	17.908,00	17.908,00
2022	5049	AB	QUINTANA	Basabideak egokitzea	27.436,75	27.436,75	27.436,75
2022	5045	AB	RIBABELLOSA	Estalkia luzatzea	28.719,35	26.886,55	26.886,55
2022	5036	AB	SABANDO	Hilerriko sarrera konpontzea	11.465,96	4.860,85	4.860,85
2022	5004	U	SAMANIEGO	Samaniegoren, eskudela eta mahaia jartzea	10.928,72	10.928,72	10.928,72
2022	5056	AB	SARATXO	Iturri publikoa aldatzea hormaren kontra eta errotari bat jartzea	1.107,15	705,43	705,43
2022	5053	AB	SOBRÓN	Gizarte etxeko arkupea konpontzea	6.181,89	6.181,89	6.181,89
2022	5039	AB	TERTANGA	Haurrentzako jolas elementuak egokitzea eta eskuratzea	9.516,65	9.516,65	9.516,65
2022	5077	AB	TOBILLAS	Edukiontzia estaltzeko euskarriak jartzea	13.068,00	13.068,00	13.068,00
2022	5034	AB	TRESPUNTES	Trespundekoko bidezidor batean, kale-argiak, barandak eta bankuak margotzea	515,45	515,45	515,45
2022	5062	AB	TUYO	Berinapea	8.455,43	8.455,43	8.455,43
2022	5064	AB	ULLIBARRI-ARRAZUA	Hainbat bidetan, ura bitzekoak jartzea	7.876,98	7.876,98	7.876,98
2022	5046	AB	ULLIBARRI-GAMBOA	Baranda forjatua hornitzea	8.074,74	8.074,74	8.074,74
2022	5058	AB	URIBARRI HARANA	Zabua aldatzea	2.645,27	2.645,27	2.645,27



I. ERANSKINA. AUZOLANAK. 2022AN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

URTEA	ESP	ERAK- MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	AURREKONTUA LAGUNGARRIA	DIRULAGUNTZA
2022	5024	AB	URRUNAGA	1508F lurzatie hesitzea	1.063,10	1.063,10	1.063,10
2022	5054	AB	URTURI	Marizubieta bidea egokitzea	2.947,56	2.947,56	2.947,56
2022	5078	AB	VILLANUEVA DE VALDEGOVIA	Herriko plazako bankuak hornitzea	2.129,60	2.129,60	2.129,60
2022	5011	U	ZALDUONDO	Ur biltegiako sarbidea egokitu eta zolatzeta	27.697,77	22.502,48	22.502,48
2022	5085	AB	ZUHATZU DONEMILIAGA	Gizarte etxea egokitzea	6.460,33	4.861,27	4.861,27
				Guztira	905.127,02	810.255,28	810.255,28

ESP: Espedientea
 AB: Administrazio Batzarra
 U: Udala


II ERANSKINA. AUZOLANAK. 2022an UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, EKAINAREN 27ko 21/2013 FORU ARAUA APLIKATUZ

URTEA	ESP.	ERAK. MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	ARRAZOIA
2022	5019	AB	ANTOÑANA	La Central bidea konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 9.4.6 artikulua
2022	5076	U	BARRUNDIA	Zuhatzola auzoa hormigoitzea eta konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2022	5069	AB	CORRO	Haurren jolastokiko zoru konpontzeko materialak hornitzea	21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua
2022	5084	AB	ERENTXUN	Haurrentzako jolastokia berritzea	21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua
2022	5052	AB	HERMUA	Bolatokia berreskuratzea	21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua
2022	5018	AB	LEKAMAÑA	Elizaren atzeko horma eta desnibela konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua
2022	5057	AB	PAGOETA	Ekipamenduko lurzatian, berdegunea egokitzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2022	5016	AB	SANTIKURUTZE KANPEZU	Larra futbol zelai zaharra berritzea (lehenengo fasea), atsedengunea	21/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua
2022	5040	AB	VILLAVERDE	Sute sareko etxola autosostengagarria	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua

ESP: Espedientea
 AB: Administrazio Batzerra
 U: Udala